

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ANDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendaurrean jartzea, eta 2024ko bigarren seihiilekoko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Egin delarik etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren 2024ko bigarren seihiilekoko tasaren kontribuzio errolda, eta 2025eko ekainaren 5ean onetsi, jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, huraosatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikularen 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztu behar zaizkio, adierazitako epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2025eko uztailaren 7tik irailaren 8ra artekoa izango da, egun biak barne.

Tasaren ordainketa helbideratuta dutenei 2025eko uztailaren 22an kobratuko zaie.

Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak: administrazio batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den finantza erakundeetako kontuetan.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak: tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei etxera bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Anda, 2025eko ekainaren 5a

Lehendakaria

ANDRES ZUAZO ITURRATE